


# ELORRIO: II. ERREPUBLIKA GARAIA



Map data: © 2024 Google / Badihardugu Euskara Elkartea



testigantza eta  
informazio gehiago  
online mapan



II. Errepublika garaia Elorrion  
nola bizi izan zen batu nahi izan dugu  
ibilbide honetan.

Besteak beste, Errepublikaren  
aldarrikapenaren eguna, eskola, alderdi  
politikoen egoitza nagusiak, edota garai  
hartako abadeei lotutako kontuak,  
lekukoek beraiek kontatuta.

Gerrako Ahotsak proiektuan jasotako  
ahozko testigantzetan oinarrituta.



## 1 ERREPUBLIKA ALDARRIKATU ZEN EGUNA

Lekukoak: Jose Aizpurua eta Patxi Esteibarlanda

Eibartik bandera ekarri eta bandak jo zuen plazan Errepublika aldarrikatu zen egunean.



## 5 KARLISTEN EGOITZA

Lekukoa: Maria Igarza

Casa Jara edo Zearsolo jauregiaren parean zuten egoitza karlistek. Gerra hastean, plazara aldatu ziren, Batzokia bereganatuz.



## 2 ERREPUBLIKANOEN EGOITZA

Lekukoak: Jose Aizpurua eta Patxi Esteibarlanda

Nazionalistek, errepublikanoek eta karlistek bazuten bakoitzak bere lokala Elorrrion. Errepublikanoen egoitza Berdura Plazan zegoen, arku dagoen lekuan.



## 6 ABERRI EGUNA GERRA AURRETIK

Lekukoa: Maria Igarza

Aberri Eguna asko ospatzen zen Elorrrion. Ikurriñekin apaintzen ziren kaleak eta balkoiak, dantzak egoten ziren...



## 3 ERREPUBLIKA GARAIKO ABADIAK

Lekukoa: Maria Igarza

Elizara jende guztia joaten zen. Abade ezberdinak ezagutu ditu, batzuk karlistak, besteak abertzaleak... haien artean eztabaidak eta hasarreak izaten zituzten.



## 7 ESKOLARA SAN ROKE KALEAN

Lekukoa: Maria Igarza

San Roke kaleko eskolara joan zen 5 urterekin. Bertan andereño euskaldun bat zegoen, Marian, bere amaren maistra ere izandakoa.



## 4 'LA PARRA' TABERNAN BILERA POLITIKOAK

Lekukoa: Maria Igarza

Sozialistak, karlistak eta abar, bakoitza bere aldetik biltzen ziren gerra aurretikoan. Umeak izan arren, zerbait arraroa sumatzen zuten.



testigantzak entzun

